


De Rerum Natura

@zaldiero



HIZPIDEAK

Urrats neurtuak

Mikel P. Ansa @peruarenaansa

Garrantzitsuak dira tempoak. Joan Fernandezek –eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak– itxaron du Pedro Sanchezen gobernuak lehen bilera egin arte, baina ez du utzi denboran luzatzen. Tempoak adierazten du eskual presoak Euskal Herrira ekartzeko edo gerturatzeko zereginak Espainiako Gobernu berriaren agendan sartuko dela alde edo moldez. Beste kontu bat izango da noiz eta nola. Oso litekeena da denboran luzatzea, urratsak poliki egitea, eta oso litekeena da urratsak banaka egitea –urratsik egitea erabakitzen badu–. Alegia, Madrilek presoen kasuak banan-banan aztertzeko bidea hartuko duela, hartzekotan.

Garrantzitsuak dira moduak ere; Euskal Irrati Telebista aukeratu du berria emateko –ez prentsaurreko bat, edo ohar soil bat–. Eta aukeraturako moduak adierazten du berria modu kontrolatuan eman nahi izan duela Fernandezek. Uste izatekoa da ordurako ETaren biktimen elkarte batzuei jakinarazia izango zela Jaurlaritzak asmoa. Hala ere, Covite eta beste elkarte batzuk berehala kexatu zaizkio. Izan ere, Jaurlaritzak aldaketa nabarmen bat egin du proposamen berrian: Espainiari eskatuko dio gizarteratze prozesua hasi aurretik ere ekartzeko presoak. Oraindik ikusteko dago horrek zer esan nahiko duen, eta ikusteko dago Sanchezek onartuko duen –Rajoyrekin 2017-2018an ezinezkoa izan zen–. Momentuz, plan berriaren inguruan pedagogia egiteari ekin dio Jaurlaritzak.

Orain falta da jakitea presoek eurek zer pentsatzen duten proposamenari buruz.

Jokoan



HITZ ETZANAK
Andoni Egaña

Jokoan aritzea gauza ederra da berez. Are ederragoa bizitzaren bi muturretan. Haurrak jokoan trebatzen du bere burua kontaduria lanetan. Balizko zenbakiak kontatzea baino kitzikagarriago zaio irabazitako garbantuak zenbatzea. Kontatzen ikasten du haurrak jokoan, eta tranpatxoak egiten, edo ahalegintzen behintzat, gerora. Edadetuak ere asko gozaten du jokoan. Eguna laburtzen denean, gauari tarte bat

osteko modua izaten du askok kartena. Bizitzaren beste alor batzuetan memoria hutsarteak dituenak ere nekez ahaztuko du aldeko tanto bat kontaktu gabe.

Egungo jendartean eskas sumatzen den belaunaldiartekotasuna jokoaren bidez zertzen zen lehen. Aita, edo ama, haurrekin aritzen zen kartetan; aitona-amonak bilobekin. Eta familia otorduen ostean konturatuko ziren nerabe bat, umeagoengandik urrundu eta helduen mahaira

hurbiltzen zela, hango jokalariren gorabeherak ulertu nahirik. Handik piska batera Institutuan hasiko zen, eta zerbait ikasita joatea komeni zitzaion. Jokoan hizkuntza ere transmititzen zen. Nola oilarlu. Nola eronka jo. Nola zorte txarra madarikatu. Nola zirikatatu aurkaria...

Joko aretoek jokoak zekarrenaren kontrako dakarte hain juxtu: bakardadea, hizkuntzarik eza, egiazko garbantuak galtzeko arriskua, itomena.

Gazteak

Telesailen urrezko aro honetan ez dago gaizki tarteka atzera begiratzea eta beste garai bateko fikzio-saio arrakastatsuetan arreta jartzea. Egungo ekoizpen erraldoekin alderatuta, 80ko hamarkadako BBCko *The Young Ones* bezalako aurrekontu txiki-komedia anarkikoa barregarri gera liteke; baina, lehenengoz ikusi genuenetik 35 bat urte pasatu direnean, ez gara lagun gutxi oraindik telesailarekin oroitzen garenok. Ez dakit *Tronu Dema* gogoan izanen ote dugun hiru hamarkada barru –hemen baldin bagaude, eta gogoan zerbait baldin badugu–. EITB Karibeko euskal konkistatzaileen gaztelaniazko oporrak



LARREPIT
Jaume Gelabert

oparotzatzen hasi baino askoz lehenago, Gazteak euskaraz –nik TV3en *Els Joves* katalanezgozatzeko aukera izan genuen kate «autonomikoetan». Surrealista, berritzailea eta ganberroa zen telesail britainiarra: Motórheadek zuzenean jo zuen atal batean! *The Young Ones* saioko pertsonaien artean Rick maite nuen. Bere burua «herriaren rapsoda» izendatua, sasi-poetak ekintzaile politikoa agertzea gustuko zuen, eta teoria anarkista ahotan izaten zuen maiz; bere jarduteak, aldiz, oso bestelako iaera erakusten zuen. «Faxista!» erabiltzen zuen behin eta berriz gainerakoen jokoera gaitzesteko. Beste garai batzuk ziren.

Santos Cerdan PSNko diputa-

tuak, Ricken antzera, faxista kalifikatzailea ibili du Na(+)-eko Iñaki Iriareren ekintza baten gaineko iritzia emateko: eskuineko foru parlamentariak –edo bietan eskuinekoenak, nor bere ikuspuntua– erreketean otordu batean hartu du parte Leitzan. Ekitaldian, besteak beste, «1936ko Gurutzada» goretsi da. Iriartek 10.000 € eskatzen dizkio Cerdani *facha* deitzeagatik. Bitartean, Txibite presidentek adierazi du «eskuina ederki ongi bizi zela ETArekin» –beste ahots batzuetatik lehendik entzuna genuen–, eta Burlatan Na(+)-ek Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan kontratazioa gaitzetsi du «ETA-ren aldekoak direlakoan». Komedia surrealistaren gidoia dagoeneko idatzia dugu euskaraz, agian lehengo garai horietako EITBko ekotziko zukeen.